

XEDAPEN OROKORRAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

1494

EBAZPENA, 2025eko martxoaren 27koa, Euskadiko Prezioen Batzordearen buruarena, zeinaren bidez Eusko Trenbideak-Ferrocarriles, S.A. (Euskotren) enpresak ematen dituen zerbitzuen 2025. urterako tarifak onartzen baitira.

Euskadiko Prezioen Batzordeak 2025eko martxoaren 27an egindako bilkuran hartu duen erabakiaren xedapen zatia argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

ERABAKIA

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan sartu da Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A. (Euskotren) enpresak ematen dituen zerbitzuen tarifak 2025. urterako berrikusteko aurkeztu duen eskaera.

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A. (Euskotren) enpresak ematen dituen zerbitzuen tarifak prezioak kontrolatzeko araudiari loturik daude, «autonomia erkidegoko prezio baimenduak» modalitatean, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege-Dekretuak, ekonomiaren jarduera suspertu eta liberalizatzeko premiazko zerga-neurriei buruzkoak, 16.4 artikuluan ezartzen duenari jarraikiz (ekainaren 8ko BOE, 139. zenbakia).

Euskadiko Prezioen Batzordeak hauen arabera erabiltzen du eskumen hori: 35/2010 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duena (otsailaren 16ko EHAA, 31. zk.); Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Agindua, baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedura ezartzen duena (uztailaren 6ko EHAA, 128. zk.).

Aipatutako arauen xedea nolabaiteko ekonomia-oreka lortzea da. Horrez gainera, justifikazio gisa kontuan eduki behar da prezioak nola osatzen diren kontrolatu behar dela, bizitzaren kostua erreferentzia hartuta.

Tarifak 2025. urterako berrikusteko aurkeztu den espedientea aztertuta, haiek nahikotzat jotzen dira eta uste da zerbitzuaren kostuen egiturako kontzeptuetara doituta daudela.

Horrenbestez, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako hau erabakitzen du:

Lehenengoa.– Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.k (Euskotren) ematen dituen zerbitzuen 2025. urteko tarifa hauek baimentzea, zehazten diren kontzeptu eta zenbatekoekin, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Bidaiarien Derrigorrezko Asegurua barne:

a) Treneko tarifak:

• Bizkaia Linea Nagusia:

Gunea	A diru-txartela	Joan
1	0,99	1,90
2	1,16	2,10
3	1,26	2,15
4	1,90	3,40
5	2,45	4,50

* Eremu mistoa hartzen du (Ermua-Deba).

• Bizkaia Txorierriko línea:

Gunea	A diru-txartela	Joan
1	0,99	1,90
2	1,16	2,10

• Lurralde artekoa:

Lurralde historiko batean hasi eta beste batean amaitzen diren bidaiak dira, eremu mistoa (Ermua-Deba/Deba-Ermua) zeharkatu eta hiru eremu edo gehiago hartzen dituztenak.

Gunea	A diru-txartela	Joan
3-8	4,00	7,00

• Gipuzkoa:

Gunea	A diru-txartela	A izengabea	J diru-txartela	Joan
1	0,99	1,30	0,79	1,95
2	1,47	1,93	1,18	2,90
3	2,73	3,59	2,18	5,40
4	4,00	5,25	3,20	7,90

* Eremu mistoa hartzen du (Deba-Ermua).

b) Tranbiako tarifak.

• Bilbo:

Joan	A diru-txartela
1,90	0,73

• Vitoria-Gasteiz:

Joan	A diru-txartela	Hilekoa A (Tran+Tuvisa)	Hilekoa J (Tran+Tuvisa)
1,90	0,73	31	26,30

c) Treneko zerbitzu osagarriak.

• Usansolo Galdakaoko ospitaleko autobusa:

Joan	Barik A J R
0,55	0,11

- Kukullagako igogailua:

Joan	B10
0,55	3,65

- d) Reinetako funikularra + lanzadera autobusa:

Joan	IV	A diru-txartela	Hilekoa
1,90	3,40	0,93	22,00

- e) Tarifa murriztuak:

			Mugi R	Barik R	Bat R
Trena	LH: Bizkaia	1	0,99	0,61	0,99
		2	1,16	0,61	1,16
		3	1,26	0,61	1,26
		4	1,90	0,61	1,90
		5	2,45	0,61	2,45
	Bizkaia-Txorierra	1	0,99	0,39	0,99
		2	1,16	0,39	1,16
	Lurralde artekoa	3-8	4,00		
	LH: Gipuzkoa	1	0,48	0,99	0,99
		2	0,71	1,47	1,47
		3	1,31	2,73	2,73
		4	1,92	4,00	4,00
Tranbia	Bilbo		0,73	0,39	0,73
	Vitoria-Gasteiz		0,73	0,73	0,31
Funikularra+Autobusa			0,93	0,64	0,93

Bigarrena.– Erabaki honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro aurretik edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 27a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko burua,
JAKES AGUIRREZABAL IRIBAR.